



GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA



2017

JARDUERA MEMORIA



ELKARGOA, ZUGANDIK HURBIL TU COLEGIO, SIEMPRE CERCA



ELKARGOKO LANGILEAK

Bulego teknikoa:
Elena Irazusta
elena@comgi.eus

Edurne Cristti
edurne@comgi.eus

Aiora Perdiguero
aiora@comgi.eus

Estibalitz Peña
estibalitz@comgi.eus

Aholkulari juridikoa:
Jon Pellejero
jpellejero@comgi.eus

Komunikazioa:
Ana Soro
prensa@comgi.eus

WWW.COMGI.EUS • 943 276 300 • INFO@COMGI.EUS

PRESIDENTEAREN AGURRA



Manuel García Bengoechea
Elkargoko presidentea

Urtebetek askorako ematen du eta benetan diotsuet, Elkargoaren jarduna bizi-bizia izan da epe horretan. Elkargoaren buruzagitza hartu nuenean nire buruari ezarri nizkion helburuek tinko diraute, ezpada inoiz baino sendoago: Deontologia Medikoa betetzeko eta, bide batez, biztanleria zaintzeko lanean jardutea, elkargokideekiko harremana hobetzea, Elkargoa gizartera hurbiltzea eta gure sendagileen prestakuntza premiak estaltzea, gure ahalbideen barruan.

Asko izan dira 2017. urteak utzi dizkigun mugarriak: aski da memoria honen orrialdeak irakurtzea hori frogatzeko. Baina ondorengoak azpimarratuko nituzke nik neure alde-tik: Elkargokidetzearen Aldizkako Balidazioa martxan jartzea, oraingoz borondatezkua izanik ere etorkizun ez hain urrunean garrantzi handikoa izango dena ([hemen](#) azaldu nuen bezala); Tutoreen Bokaltza sortzea, Belén López Rubio doktorearen ardurapean, hezitzailearen figura bultzatzeko asmoarekin (horretaz ere aritu nintzen [editorial](#) batean); eta eguneratze eta prestakuntza medikoko ikastaroak antolatzea, ikastaro horiek bereziki Gipuzkoako Lehen Mailako Arretako medikuei hurbildu nahian.

2017. urtean Gipuzkoako Sendagileen Elkargoko presidente kargua edukitzeaz gain, Euskal Herriko Sendagile Elkargoen Kontseiluko presidente gisa ere aritu naiz. Horren ondorioz beste elkargo batzuekin harremanak edukitzeko eta Medikuen Elkargoen Antolamenduak (OMCK) antolatutako ekitaldi, bilera eta batzar ugaritara joateko aukera izan dut. Horietan gai asko jorratu eta eztabaidatu izan dira (kolokatasuna, mediku gabezia, BAME plazak edo medikuei egindako erasoak bezalakoak) eta ekimen zinez interesgarriak eraman dira aurrera, hala nola pseudozientzien, pseudoterapien, intrusismoaren eta osasun-sekten aurkako Behategiaren sorrera, nagusia aipatzearen.

Zaila da niretzat hain tarte txikian urte osoa laburbiltzea, baina Elkargoaren aldizkari digitalean (www.medikuenahotsa.com) eta hurrengo orrialdeetan jaso ditugu albiste-rik garrantzitsuenak.

PRESIDENTAREN AGURRA



Begoña Azkarate
Fundazioko presidentea

Elkargoaren Fundazioa 2011. urtean abian jarri zenetik, Fundazioko presidente bezala eta baita Elkargoko Gobernu batzordetik ere, saiatu gara Fundazioaren jarduerak ahalik eta gehien sendotzen, jarduera horiek bi lerro nagusitan zentratuz batez ere: elkargokide gipuzkoarren prestakuntza eta trebakuntza.

Garapen etengabea murgildua dagoen mundu batean bizi gara, egunetik egunera aurrerapenak agertzen dira eta teknologia berriak asmatzen dira, eta mundu horretan beharrezkoa da, zalantzarik gabe, gure ezagutzak eta gure jardun medikoa etengabe eguneratzea. Horrez gain, harrotasun-puntu batekin esan dezaket 2017a bitartean prestakuntzako 20 jardueratik gora antolatu ditugula, profesional medikoentzako bezala baita herritar xumeentzat ere, eta horietan 500 elkargokidetik gora izan genituela partaide. Era berean, elkargokideek prestakuntza-mailan eta baita ikerketa eta dibulgazio-mailan ere egindako ahalegina balioztatu dugu urtero banatzen ditugun eta urtetik urtera parte-hartzaile gehiago biltzen dituzten Fundazioaren 5 Sarien bidez. Ezin utzi hemen aipatu gabe sari horietako batzorde zientifikoak osatzen dituzten lankideek egiten duten lan eskerga.

Azkenik, Elkargoko Kooperazio Bulegoak egindako lan bikaina azpimarratu nahiko nuke. Gure lankide Iñaki Prieto doktorea arduratzen da sorrera-unetik beretik sendotuz joan den bulego horretaz. Horren guztiaren erakusgarri esan behar da 2017 honetan antolatu dela, aurreneko aldiz, Kooperazio Medikoen Eguna, eta bertan elkartu ziren beren garapen-proiektuak aurrera eraman ahal izateko Elkargoko Fundazioaren eskutik laguntza ekonomikoa jaso duten erakunde eta antolakunde desberdinak. Planetako hainbat lekutan pertsona askoren bizi-kalitatea eta osasuna hobetzera bideratuak dauden proiektu horietan nola edo hala parte hartzea ohore handia da Elkargoarentzat eta Fundazioarentzat.

Zalantzarik ez daukat 2018an ere ilusio berberarekin jarraituko dugula lanean, proiektu horiek eta beste hainbat aurrera eramateko.

GOBERNU BATZORDEA

Manuel García Bengoechea
Presidente

Carlos Benito Gómez
Idazkari orokorra

Begoña Azkarate Ayerdi
Batzordekidea

Iñaki Prieto Argarate
Batzordekidea

María Asunción Guerra Alonso
Batzordekidea

Valentín Collado Espiga
1. Lehedakariordea

Ion Iriarte Aseguinolaza
Idazkariordea

Carmen Solórzano Sánchez
Batzordekidea

Juan José Echeverría Arruabarrena
Batzordekidea

Ramón San Sebastián Vicioso
Batzordekidea

Ignacio Eizaguirre Sexmilo
2. Lehedakariordea

Víctor Irigoyen Murua
Diruzaina/Kontularia

Iñaki Sanz Esquiroz
Batzordekidea

Maria Aranzazu Elicegui Sarobe
Batzordekidea

Belén López Rubio
Batzordekidea

DEONTOLOGIA BATZORDEA

Enrique Arriola Manchola
Presidente

Ignacio Ayesa Orobengoa
Idazkaria

Alvario Iruin Sanz
Batzordekidea

M^a Inmaculada Ruiz Montesinos
Batzordekidea

Maidier Jimenez Arren
Batzordekidea

Francisco Etxeberria Gabilondo
Batzordekidea

Manuela Perez Rizo
Batzordekidea

ELKARGOKO DATUAK

2017

ELKARGOKIDEAK GUZTIRA: 4.065

SEXUAREN ARABERAKO BANAKETA:

> EMAKUMEAK: 2.196

> GIZONAK: 1.869

ELKARGOKIDETZEEN MUGIMENDUAK:

> ALTAK: 188

> BAJAK: 126

· Beste probintzi batera joandakoak: 72

· Euren jarduera eten edo atzerrira bueltan joandakoak: 27

· Hildakoak: 27

Ohorezko medikuak eta jubilatutak: 301

2017ko Ohore goreneko Elkargokidea: Feliciano Ortiz Serrano jauna.

Ohorezko Elkargokideak 2107an: 48

Ohorezko Elkargokideen zerrenda:

AGUIRRE LIMOUSIN, M. Mercedes
ALBISU APARICIO, María Victoria
AMATO UBAGO, Elena
ARANGUREN BASCARAN, M. Carmen
ARCELUS CELAYA, M. Antonia
ARRUE IMAZ, Patricio
BARBARIN ABINZANO, Isabel
BARRUTIETA PEREZ, Julio Iñigo
BOYRA PRENDES, José Carlos
CAMACHO ARRIOAGA, Juan José
CROWLEY SERRANO, Luis Alberto
DIAZ TELLERIA, Miren Lore
ELORZA ORUE, José Luis
ELOSEGUI LOPEZ-QUINTANA, M^a Eugenia
FERNANDEZ MARTINEZ, Luis Ángel
FERNANDINO GOITIA, Jesús María

GALARZA ARRAZOLA, José Ramón
GAZTAÑAGA EXPOSITO, Ramón
GONZALEZ GALARRAGA, José Ignacio
GONZALEZ SAÑUDO, Antonio María
GURREA GUERRA, Agustín
HERBON BRECIA, José Pedro
IBARLUCEA ELVIRA, Juan Antonio
IRASTORZA IRIBAR, Gregorio
JANIN MENDIA, Fernando
LETAMENDIA LOINAZ, Ander M.
LOJO SALDIAS, José Andrés
MARTI MASSO, José Félix
MARTINEZ ALBANO, María Pilar
MUGICA BLANC, Francisco Javier
MUÑOZ LOIACONO, Marta
OLALLA GARCIA, María Carmen

OÑATIBIA BAGUES, Agustín
ORMAZABAL ARAMBURU, Teresa
PAGES GASTAMINZA, Ignacio
PARADINAS MOHEDANO, Vicente
PEREZ TRALLERO, Emilio
PLACERES ESPINO, Ventura
PONZ GONZALEZ, Lorenzo
SAN VICENTE ESTOMBA, Jesús M.
SANCHEZ VALLEJO, Juan
SORIAZU MUGICA, José Antonio
TREVIANO AZNARES, Jesús M.
URANGA URANGA, M. Teresa
URQUIZU ITURRARTTE, Ramón
VIVANCO MARTINEZ, Fco. Javier
ZABALA RODRIGUEZ PICABEA, Juan Pablo
ZUBIZARRETA BAREA, Miguel M^a

ELKARGOKIDEARI ZERBITZUAK

Elkargokideari arreta

Elkargokidearen beharrei erantzuteko lan egiten du bulegoak: informazioa, tramiteak, zalantzak....

Bulego birtuala

Bulego teknikoaz gain, bulego birtuala ere eskura duzu webgunean. Bertatik askotariko tramiteak egin ditzakezu: ziurtagiriak edo errezetak eskatu, hitzorduak jarri, kontsultaren bat egin... Zure posta elektronikoa eta pasahitza besterik ez dituzu behar.

Aretoen alokairua

Elkargoko aretoak zure erabilerarako baliatzen dituzte. Bulego Birtualaren bidez egin dezakezu eskaera.

Informazio interesgarria

Komunikazio kanal anitz baliatzen ditu Elkargok zure jardura profesionalarekin lotutako informazioa helarazteko: webgunea, buletinak, sare sozialak...

Formakuntza

Gai anitzei buruzko ikastaroak antolatzen ditu etengabe Elkargok, doakoak eta gehienetan akreditatuak:

- > Ikastaro presentzialak
- > Tailerrak
- > Adituekin hitzaldiak
- > Hitzaldiak
- > Mahai inguruak...

Aholkularitza juridikoa

Zure jardura profesionaleko edozein zailtasun argitzeko Elkargoko abokatuekin hitzordua eska dezakezu.

Produktu bereziak

Elkargok hitzarmenak ditu hainbat entitatekin. Horri esker, zenbait produktu eta zerbitzuetan deskontuak dituzu. Elkargoko webgunean duzu informazio gehiago.

HAINBAT KUOTA

1. ELKARGOKIDEAREN KUOTA, Elkargoaren eta Fundazioaren funtzionamendu eta mantentzerako erabiltzen dena. Nahitaezkoa.

> Ikastetako amaitu ondorengo 4 urteetako elkargokide kuota: 28€ hiru hilero.

> Elkargokide arrunta: 60€ hiru hilero.

2. OMC-KO PATRONATUEN BAZKIDE BABESLEAREN ZURE KUOTA ELKARGOKO KUOTA DESBERDINAK KUOTA. Hautazkoa.

> Kuota: 23,77€ hiru hilero.

> Onurak: Laguntza asistentzialak, hezkuntzarako eta kontziliaziorako laguntzak... Gainera, Fundazioak bultzatzen dituen proiektu sozialak lagunduko dituzu.

Informazio gehiago: www.fphomc.com

3. OHOREZKO ELKARGOKIDEAREN KUOTA. Hautazkoa.

> Kuota: 10€ hiru hilero.

> Onurak: Zure onuradunek laguntza ekonomikoa jasoko dute zu hiltzean.

EKARPENA GIZARTEARI

> Hiritarrek zerbitzu profesionala eta etikoa jasotzen dutela bermatzea.

> Osasun arazoaren inguruko sentsibilizazioa eta prebentzioa.

> Gipuzkoan lan egiten duten medikuen direktorioa eskaintzea, webgunearen birtualizazioa.

> Gipuzkoako sendagileen eta orokorrean medikuntzaren prestigioa eta baloreak zaindagarriak izatea eta babestea.

> Gaurkotasuneko osasun arazoaren inguruko informazio profesionala eta egiazkoa eskaintzea.

Elkargoa:

2017ko jarduera aipagarriak

EKITALDI INSTITUZIONALAK

Europako IV. Jardunaldia

Lanbide medikoak eta sanitateak, oro har, Europako Batasunaren esparruan dauzkaten erronkak aztertzea da urteroko jardunaldi honen helburua. Estatu osoko Elkargoek, eta baita zenbait eurodiputatuk, arduradun politikoei eta osasun-administrazioetako ordezkariak hartuko dute parte jardunaldian. Gehiago irakurtzeko. [Irakurri](#)

Erregearekin elkaturik

Espainiako Sendagileen Elkargo Ofizialen Kontseilu Orokorren (CGCOMen) Batzar Nagusia Zarzuela jauregian izan zen joandako irailean, eta bertan Erregearekin elkartu zen. Medikuen Elkargoen Antolamenduko (OMCKo) presidentea den Serafin Romero Agüit doktorea elkarreldiaz baliatu zen Estatuko profesional medikoen, baldintza desagoki guztien gainetik ere, egunez egun egiten duten ahalegina azpimarratzeko. [Irakurri](#)



Osasun-langileek jasandako erasoen kontra

Barne Ministerioak 2017. urtean onartu zuen osasun-profesionalek jasandako erasoen aurrean hartu beharreko neurri polizialen protokoloa eta horren harira Lurraldeko Osasun Solaskide Poliziala izeneko figura sortu zen, delituen intzidentzia gutxitu eta Estatu osoko pertsonal medikoaren segurtasun-sentsazioa hobetzeko helburuarekin nagusiki. [Irakurri](#)



OMCren Batzar Orokorra

Bileran jorratutako gaien artean presetakuntza medikoa zer den eta zer ez den argituko duen dokumentu bat lantzea proposatu zen, presetakuntza hori eskaini behar duten eragileak identifikatuz bide batez, interes-gatazka posible guztiak uxatuz eta erabateko garrantasuna bermatuz era horretan. [Irakurri](#)

Pseudozientzien kontrako Behatokia

Martxoan OMCren batzarrak argi berdea eman zion pseudozientzien, pseudoterapien, intrusismoaren eta osasun-sekten aurkako Behategiaren sorrerari. Horrela, <http://bit.ly/2o-jDRx5> webgunearen bitartez, gisa horretako pseudoterapien inguruko informazio kontrastatu, egiaztatu eta balioztatua partekatu eta transmititzeko modua ematen digu behategiak, praktika horien ugalketari aurre egiteko alerta-sistema bezala erabiltzearekin batera. [Irakurri](#)

Medikuntzaren jardun pribatuaren inguruko I. Batzar Nazionala

Medikuntzaren jardun pribatuak hainbat ikuspegitatik duen egoera aztertu zen Batzar honetan (dela profesional medikoen, konpainien, talde hospitalarioen nahiz administrazioen ikuspuntutatik). Parte hartu zuten askoren iritziz profesionalen elkartasuna edo asoziazionismoa litzateke konpainia aseguratzailerekin eta ospitale-zentroekin elkarriketak edukitzeko sistemarik onena. [Irakurri](#)

Etorkizuneko Lehen Mailako Arreta

Sendagileen Elkargo Ofizialen Kontseilu Orokorrak (CGCOMek) [“BlogAP25”](#) izeneko jarri du abian, erakundearen barruan LMaren inguruan eratutako lantaldeak prestatutako [“Osasuneko Lehen Mailako Arreta Espainian 2025ean”](#), dokumentua ezagutzera eman eta hedatzeko asmoz. 2025. urtera begira Espainian Lehen Mailako Arretak norantz jo behar duen guztion artean gogoetatuzko sustatutako ekintza plan interaktiboaren barruan kokatzen da tresna berri hori.



Elkargoa:

2017ko jarduera aipagarriak

ELKARGOAREN EKITALDIAK

Medikuaren Eguna

Urrian, urtero egin ohi den bezala, Medikuen Eguna ospatu zen Elkargoan. Zitara 2017ko Ohorezko Medikuek etorri ziren eta homenaldia egin zitzaion aurtengo Ohore goreneko Elkargokideari: Feliciano Ortiz Serrano jauna. Eguna bukatzeko anaitasunezko afaria egin zen Fagollaga jatetxean.



BAMEi harrera

Ekainean Elkargoak ongietorria eman nahi izan zien azken urtea azterketa prestatzen eman eta gero, Gipuzkoan lanean hasiko diren mediku egoiliar berriei. 2017an 81 izan dira Gipuzkoako zentro bat aukeratu duten BAMEak.



Eguberri Festa

Urtero bezala, Eguberri Festa ospatu zen abenduan Elkargoan, sendagileen seme-alabei zuzendutako ekitaldia. Aurten ohiko film proiektzioa alde batera utzi eta antzerki obra bat ikusteko aukera izan zen, Osakidetzako langileek osatzen duten Antzerkidetza taldearen eskutik. Ekitaldian Eguberri Lehiaketen sari banaketa ere egin zen eta txokolata da batek itxi zuen eguna.



Urrezko Dominak

2017ko azaroaren 24an urrezko hiru domina eman zitzaizkien urteotan Elkargoarekin lotura luze bezain estua izandako hiru pertsonari: Coro Eceiza Telleria doktorea, 24 urtez Elkargoko diruzaina izan dena; Carlos Pellejero Garcia, 34 urtez Elkargoko abokatua izandakoa; eta Elena Irazusta Adarraga, duela 44 urtetik hona Elkargoko bulegoburua izan dena.

Ekitaldi-aretoa mukurua beteta zegoela, ustekabez betetako ekitaldiaz gozatu ahal izan zuten omenduek. Egungo Gobernu Batzordeaz gain, Manuel Garcia Bengoechea presidentea buru zelarik, bertan izan genuen Medikuen Elkargoaren Antolamenduko (OMCKo) presidentea den Serafín Romero Agüit doktorea ere. Aurrez aipatutakoez gain, mediku ugari ere agertu ziren ekitaldira, hain egun berezian omenduei bere esker ona eskaintzera.



VER VÍDEO



Elkargoa:

2017ko jarduera aipagarriak



HITZARMEN ETA PROIEKTUAK



AMArekin harremana

Elkargoa eta AMA, osasuneko profesionalen mutua, lankidetzan estuan aritzen dira Elkargoaren hainbat proiektutan. Horrela, eta mutua horrek elkargokideei eskaintzen dizkien estaldurez gain, bera da, hain zuzen ere, Fundazioaren babesle nagusia, eta bere urteko ekarpenari esker antolatzen dira, hein handi batean, elkargokideentzako prestakuntzako doako ikastaro guztiak, eta finantzatzen dira Fundazioaren Sariak. Era berean, ekarpen bereziak egiten ditu aparteko zenbait ekitaldi direla medio, Elkargoaren Gabonetako jaia esaterako.



BANKOArekin harremana

Urte asko dira Elkargoak Bankoarekin, Donostiako banketxearekin, duen harremana abiatu zela, eta harreman hori sendotuz joan da denborak aurrera egin ahala. Elkargoaren banku-erakundea izateaz gain, Bankoak ondo baino hobeto ezagutzen ditu Elkargoan aurrera eramaten diren egitasmoak, Fundazioaren babesleetakoa baita, eta horregatik diru-ekarpena egiten dio urtez urte. Horrez gain, Bankoak finantza-produktu eksklusiboak eskaintzen dizkie Gipuzkoako elkargokideei eta horien senitartekoei, abantaila handiekin, Elkargoarekin sinatua daukan lankidetzako hitzarmenari eta harreman bereziari esker.

OSAGAIZ, medikuntza, erit-zaintza eta farmakologia gaien aldizkari zientifikoa

2017an OSAGAIZ aldizkaria jaio zen, Udako Euskal Unibertsitateak (UEU) eta Osasungoa Euskalduntzeko erakundeak (OEE) martxan jarritakoa, Gipuzkoako Sendagileen Elkargoaren laguntzarekin. Osasun zientziei buruzko artikulua zientifikoa argitaratzea eta ikerketa taldeen lanak euskaraz ezagutzera ematea da online aldizkari honen helburua.

[Gehiago irakurri](#)



“Ikusmen baxua daukat” kanpainarekin lankidetzan

2017an lankidetzako akordio bat sinatu zen Gipuzkoako Begisare erakundearekin, bestela esanda Erretinosi Pigmentarioak Erasandakoen Elkartearekin, eta hitzarmen horretan hainbat ekintza begiesten dira “Ikusmen baxua daukat” izeneko kanpaina zabaltzeko. Aipatu kanpaina hori duela hiru urte jarri zen abian, erabat it-suak izan gabe ere ikusmen-arazo larriak dauzkaten pertsonak badirela ezagutzera eman eta herritarrek horien egoeraz sentsibilizateko, beren eguneroko bizimodua errazagoa izan dadin betiere. [Irakurri](#)



Bidaia medikuenzat

2017. urtean eskaini ziren, aurreneko aldiz, bi bidaia eksklusibo elkargokideentzat, Elkargoak B the travel brand agentziarekin sinatua daukan lankidetzako hitzarmenari esker. Bidaia-agentzia horrek urteak zera matzan lehendik ere Bizkaiko Elkargoarekin batera lanean, eta 2017an Gipuzkoako medikuek aukera izan zuten soilik medikuentzat antolatutako bidaiez gozatzeko.



Elkargoa:

2017ko jarduera aipagarriak

HITZARMEN ETA PROIEKTUAK

Sendagileen artean (PAIME)

Sendagile Artean (PAIME gaztelaniazko sigla da, Gaixorik dagoen medikuari laguntzeko programa esan nahi duena) konfidentzialitatean eta konfiantzan oinarritutako programa bat da, profesional medikoentzako bereziki diseinatua dagoena. Elkargoetatik bideratzen da, bere jardun profesionalen eragozpenak sor diezazkiokeen arazo psikikoak eta/edo alkoholarekiko nahiz beste droga batzuekiko, psikofarmakoak barne, portaera adiktiboak dituzten medikuei laguntzeko. Medikuen errehabilitazioa ahalbidetzea da programaren azken helburua, berriro ere berme egokiekin lanera itzuli ahal izateko.

EAEko datuak

2017an Euskal Autonomia Erkidegoko (EAEko) Sendagile Artean – PAIME programak 119 paziente desberdin artatu ditu, eta horietatik 39 kasu berriak dira programan, 5 birgaixotzeak eta gainerako 75ak lehendik ere artatuak ziren pazienteei dagozkie. Abenduaren 31n, tratatutako 119 pazienteetatik 111 kasu aktibo aurkitzen ziren, 5 pazienteri alta eman zitzaizen, batek bertan behera utzi zuen programa bere jardunerako arriskurik gabe, itxura batean, eta 2k alta jaso zuten programatik, paziente horiei lanerako ezintasuna eman zitzaielako. 2017. urtea bitartean Sendagile Artean programan artatutako 119 pazienteetatik, 28k lanerako ezintasun iragankor edo LEI bat behar izan zuten, eta horrek tratatutako kasuen % 23,5 esan nahi du; abenduaren 31n 8 paziente soilik zeuden LEI egoeran (% 6,7), eta horrek pazienteen % 71,4 lanera itzultzen direla esan nahi du. 2017an aztertutako 39 kasu berriak horrela banatzen dira lurralde historikoen arabera: 23 kasu Bizkaian, 11 kasu Gipuzkoan eta 5 kasu Araban.

EAEko Sendagile Artean – PAIME programa 2004an sortu zenetik 2017ko abenduaren 31 arte 290 paziente izan dira, guztira, programan artatutakoak.



OMC



ORGANIZACIÓN
MÉDICA COLEGIAL
DE ESPAÑA



FUNDACIÓN PARA LA
PROTECCIÓN SOCIAL



OMCren Gizarte Babeserako Fundazioa

Elkargoak laguntzak eskaintzen dizkie, Fundazio horren bitartez, premian aurkitzen diren elkargokideei edo horien senideei. Sistema publikoak eskaintako laguntzen osagarri moduan, lanbide medikoan diharduten kideen eta horien senitartekoen gizarte-, hezkuntza- eta osasun-mailako premiarik berehalakoenak eta oinarritutako kontuan hartu eta horiei erantzuna ematea da Fundazio horren eginkizuna, alderdi sozialetik gerta daitezkeen arrisku posibleei modu integralean aurre egiteko aukera ematen duten prestazio, programa eta zerbitzuak baliatuz horretarako.

Gipuzkoako datuak

Gipuzkoan 3.075 dira bere borondatez Fundazioari atxikiak dauden elkargokideak, eta urtero 295.730,52 €-ko ekarpena egiten diote Fundazioari. Ekarpene horri esker, ondorengo laguntzak eman ahal izan dira aurretik:

- > Gipuzkoako elkargokideak ziren medikuen 24 gazte umezurtzek aipatutako Patronatuaren laguntzak jaso zituzten, 96.197 eurokoak guztira. Patronatuak bi eratako laguntzak begiesten ditu umezurtzentzat: 21 urtez azpikoentzako laguntzak, batetik, eta ikasketa-bekak, bestetik, adin horretatik aurrera ikasten jarraitzen dutenentzako. 21 urtez azpiko 13 gaztek 4.754 €-ko laguntza bat jaso zuten batez beste, izanik kopurua 61.807,71 €-koa guztira. Bestalde, 21 urtetik gorako 9 gaztek ikasketa-beka bat jaso zuten, izanik kopurua 32.345 €-koa guztira.
- > 17 pertsonak jaso zuten gizarte-babeserako laguntzaren bat: 9 umezurtz desgaituk, izanik laguntza guztira 57.068,40 €-koa; 3 mediku desgaituk, 26.488,29 € guztira; 3 mediku erretiratuk, 32.942,63 € guztira; egoitza-gastuak mediku batek, izanik urteko kostua 4.938,27 €-koa; eta alargun batek, 9.132 €-ko laguntza. Onuradun guztiei emandako laguntzen kopurua 224.723,29 €-koa izan da guztira.

Fundazioarentzako kuota hau borondatezkoa bilakatu zenetik, zenbait elkargokidek baja eman zuten, eta elkargokide bihurtzen diren profesional berriek parte ez hartzea erabakitzen dute kasurik gehienetan. Horregatik, azken 2 urteotan jasotako diruak beherakada garrantzitsua izan du.

Gipuzkoako Sendagileen Elkargotik benetan azpimarratu nahi genuke duela 100 urte baino gehiagotik Fundazio horrek egindako lan izugarria, profesional medikoei bezala baita horien senitartekoei ere premiarik handienez daudenean lagunduz.

Elkargoa:

2017ko jarduera aipagarriak


AISIALDIA

Senior Medikuntza Ikasgela

Hitzaldi ziklo hau Jubilatuen Batzordeak antolatzen du, medikuntzarekin ez ezik artearekin edota gizarte zientziekin loturikoak. Hilabete bakoitzaren azken ostegunetan egiten dira (udan izan ezik), arratsaldean, eta sarrera doakoa da elkarkokide ororentzat.

2017an ondorengo hitzaldi programa eraman zen aurrera:

- > Urtarrilak 26: Trastornos del neurodesarrollo en la infancia y la juventud. Joaquín Fuentes Biggi doktorea.
- > Otsailak 23: Transfusiones de sangre en el tercer mundo. José Manuel Cardenas dk.
- > Martxoak 30: La salud y el arte. José Pedro Herbon Brecia dk.
- > Apirilak 27: Cerebro y música. José Felix Marti Masso dk.
- > Maiatzak 25: Frank Lloyd Wright, un arquitecto para la historia. Emily Merino dk.
- > Ekainak 29: Guipúzcoa monumental. Juan Bautista Mendizabal.
- > Urriak 26: Mozart, sus enfermedades y música. Jorge Guridi dk.
- > Azaroak 30: Cocinar para vivir. Fernando Fombellida dk.
- > Abenduak 14: Momento musical. Carlos Benito dk.
- > 14 de diciembre: Momento musical. D. Dr. Carlos Benito.



Musika emanaldiak

Musikak presentzia berezia du Elkargoan. Badira 19 urte Carlos Benito doktoreak (Elkargoko idazkaria) bere pasioa Elkargora ekarri zuela, eta, geroztik, hilero askotariko obra musikalak proiektatzen dira Areto Nagusian. Benito doktoreak sarrera labur bat egiten die obra horiei (ballet, zarzuelak, operak, kontzertu sinfonikoak...) eta ondoren ortebeteko iraupena duen proiektzioa egiten da, definizio altuan. Konpositore klasikoen obrak dira gehienak: Beethoven, Bach, Brahms edo Shostakovich. Gainera, data berezietarako proiektzio bereziak antolatzen dira, esaterako, zuzenean grabatutako musikalak edota film musikatuak. [Ikus egitaraua](#)

Postak eta Ipuinen Lehiaketa elkargokideen seme-alabentzat

Urtero, Eguberriekin loturik, bi lehiaketa antolatzen ditu Elkargoak sendagileen seme-alabei zuzenduta: bata, Eguberri Txartelena, eta, bestea, Ipuin Lehiaketa. Adinaren araberako kategoriak daude: 6- urte, 10-12 urte eta 13-18 urte.

[Ikus oinarriak](#)

Lan irabazleak elkargokide guztientzako ikusgai jartzen dira: txartelak Elkargoko sarrerako parietan eta ipuinak aldizkari digitalean. Sari Banaketa Eguberri Festan egiten da. [Ikus irabazleak](#)



Fundazioa

2017ko ekintza nagusiak

FORMACIÓN


Ikastaroak

Hilero, udan izan ezik, Fundazioak elkargokideei zuzentako ikastaroak antolatzen ditu, doakoak denak eta gehienak Eusko Jaurlaritzak akreditatuak. Ikastaroen helburua sendagileen formakuntza eta gai desberdinen gaurkotasuna lantzea eta in-dartzea da.

2017an ondorengo ikastaroak antolatu ziren:

- > CURSO DE ELECTROCARDIOGRAFÍA CLÍNICA
- > TALLER: LA COMUNICACIÓN MÉDICO PACIENTE
- > CURSO DE HEMATOLOGÍA
- > PRUEBA DE ESFUERZO (EKIME)
- > ELEKTROKARDIOGRAFIA KLINIKOA
- > LA DIABETES MELLITUS, ¿UNA ENFERMEDAD CARDIOVASCULAR? (mañana)
- > LA DIABETES MELLITUS, ¿UNA ENFERMEDAD CARDIOVASCULAR? (tarde)
- > PUESTA AL DÍA EN ALERGIAS
- > ENVEJECIMIENTO Y FRAGILIDAD EN ATENCIÓN PRIMARIA (mañana)
- > ENVEJECIMIENTO Y FRAGILIDAD EN ATENCIÓN PRIMARIA (tarde)
- > ODONTOPEDIATRÍA
- > CURSO BÁSICO DE INTERPRETACIÓN RX DE TÓRAX
- > INTERPRETACIÓN BÁSICA DE LA GASOMETRÍA (Laboratorio)
- > CURSO DE ACTUALIZACIÓN EN LITIASIS URINARIA
- > CURSO DE ACTUALIZACIÓN EN PATOLOGÍA DIGESTIVA

GUZTIRA 559 SENDAGILEK PARTE HARTU DUTE



Fundazioa

2017ko ekintza nagusiak


FORMAKUNTZA

Adituekin solasaldiak

Adituek eskaini ohi dituzten hitzaldi hauek hiruhilero antolatzen ditu Fundazioak, batetik bat, gai batean egon daitezkeen aurrerapen edo gaurkotasanak elkargokideei helarazteko helburuz. Hiru orduko iraupena izan ohi dute, doakoak ere bai, eta gehienak akreditatuak.

2017an ondorengo solasaldiak egin ziren:

- > PRESERVACIÓN DE LA FERTILIDAD EN PACIENTES ONCOLÓGICOS y otras situaciones.
- > ICTUS: Diferentes abordajes desde la Cardiología, Neurología y Hematología.
- > ENSAYOS CLÍNICOS: El peligroso camino de la desregulación.
- > PROGRAMA DE DONACIÓN Y TRASPLANTE del País Vasco y Gipuzkoa.



Ikerketarako bekak

Ikerketa indartu eta errazteko asmoz, Biodonostia Institutuarekin akordioa sinatuta dugu gure elkargokideen ikerketa proiektuetan laguntzeko. 2017an, esaterako, bi sendagile liberatuta egon ahal izan dute ikerketa lanak egiteko, Fundazioaren laguntzari esker: Fermín Moreno Izco neurologoa eta M^a Itxaso Marti Carrera pediatra.

Osasun Heziketarako Ikasgela

Osasun Heziketarako Ikasgela herriarentzako prestakuntza eta heziketa baliabide berri bat da, gure gizarteko patologia eta gaixotasunen inguruko informazio egiazko eta zehatza eskaintzen duena.

2017an ondorengo hitzaldi irekiak antolatu ziren:

> ¿CÓMO CONSIGO QUE MI ALIMENTACIÓN SEA SALUDABLE?

Hizlaria: Amaia Perales Antón (dietista-nutricionista)

> EN EL SEXO NO HAY JUBILACIÓN: Disfrutar desde la experiencia.

Hizlaria: Elisa Isabel García Palenzuela (psikologoa eta sexologoa)

> APRENDIENDO A CUIDAR: Consejos sobre los cuidados básicos del día a día de un enfermo crónico. Hizlaria: Naroa Amiana Arratibel (erizaina)

> ¿ES MI HIJO ALÉRGICO? Alergias infantiles más comunes y claves para detectarlas.

Hizlaria: Sara Martínez (mediku alergologoa)



Fundazioa

2017ko ekintza nagusiak

FUNDAZIOA SARIAK 2017

Fundazioak ematen dituen sari hauen bidez, medikuen prestakuntza-efortzua go-raipatu nahi da, medikuntzako ikasleen eta lanbide medikoan diharduten ikertzaile eta zabaltzaileen lana balioan jarrita. Hala, urtero Fundazioa Sariak antolatzen ditu Elkargoak eta guztira 5 sari banatzen dira (alboko orrian daude denak).

Ekainaren 1ean egin zen aurtengo Sari Banaketa, Elkargoko Areto Nagusian.



2017an saritutakoak

1.- Ignacio Maria Barriola Dk. Saria, doktorego-tesi onenarentzat

- > 1go lana: "Neumotórax Espontáneo primario: Mejora de la práctica clínica basada en la evidencia", Borja Aguinagalde Valiente dk.
- > 2. lana: "Demencia frontotemporal por mutaciones en el gen de la progranulina. Aspectos Clínicos y moleculares" Fermín Moreno Izco dk.

2.- Pilar Lois doktorea saria, aldizkari mediko batean argitaratutako artikulu zientifiko onenarentzat

- > 1go lana: "Digital periaerial sympathectomy in the management of post-traumatic Raynaud syndrome", Ander Letamendia Loinaz dk.
- > 2 lana: "Cancer risk in DM1 is sex-related and linked to miRNA-200/141 down-regulation", Roberto Fernandez Torron dk.

3.- Garbiñe Ochoa doktorea Saria, barneko mediku egoiliarrek aurkeztutako Poster edo Ahozko komunikazio onenarentzat

- > 1go lana: "Validez de la biopsia con aguja gruesa en el algoritmo diagnóstico de los linfomas", Amaia Goienetxea Murgiondo dk.
- > 2 lana: "Estudio de factores relacionados con mal pronóstico en paradas cardiorrespiratorias reanimadas que ingresan en CMI", Naiara Etxeberria Altuna dk.

4.- Miguel Echenique dk. Saria, Unibertsitateko Ikasketa Espediente onenarentzat

Sarituak: Nerea Mora Ayestaran dk.

5.- JOSE DE BEGIRISTAIN SARIA, Medikuntzako ikasketetan euskaraz aurkeztutako amaierako lan onenarentzat

Sarituak: Nerea Mora Ayestaran dk. eta María Leturia Etxeberria dk.

Fundazioa

2017ko ekintza nagusiak

Osasun Lankidetzaren Eguna

2017an lehen aldiz ospatu da Elkargoan Osasun Lankidetzaren Eguna. Orain arte, Fundazioak urtero ematen dituen laguntzak Medikuen Egunaren ospakizunean banatzen ziren, baina Fundazioaren erabakiz Lankidetzari ekitaldi propioa antolatu zaio aurtten. Ekitaldi honen helburua da garapenerako erakundeak eta euren proiektuak gertuagotik ezagutzea eta boluntariora balioan jartzea eta sustatzea.

Elkargoarekin azken urteetan elkarlanean aritu diren GKE anitz gerturatu ziren zitara. Bost erakunde igo ziren oholtzara, eta lehengo urtean Elkargoaren diruaz garatu ahal izan zuten proiektua aurkeztu zuten: José Luis Paulín Seijas MUNDU BAT erakundekoa; Iñaki Agiriano Garaikoetxea AMSOGRAKoa; John Comba PALIATIVOS SIN FRONTERASEkoa, Eva Sanchez Tdh-GIZAKIEN LURRA Fundaziokoa eta Javier Torán Monse-rrat DENOK OSASUNAREN ALDE-TODOS POR LA SALUD (D.O.A.) erakundekoa.

Ondoren, 2017ko Fundazioaren laguntzen banaketa egin zen eta ekitaldiari amaiera emateko lunch-az gozatu ahal izan zuten bertaratutakoek.



Guztira 20.700 euro banatu zituen Fundazioak



2017an laguntza jaso zuten erakundeak:

- > ONG AMSOGRA. Proiektua: Adquisición de un colposcopio para la detección precoz de carcinoma cervicouterino en las mujeres de Nueva Segovia (Nicaragua).
- > O.D.M / MUNDUKO BEGIAK. Proiektua: Refuerzo de las capacidades en salud ocular de los recursos humanos sanitarios de la región de Mopti (Mali).
- > PALIATIVOS SIN FRONTERAS. Proiektua: Apoyo para la atención domiciliaria paliativa de PSF Melilla, que atienden tanto en Melilla como en pueblos cercanos de Marruecos, en la provincia de Nador.
- > SAHARA CONMIGO. Proiektua: Proyecto de salud bucodental para niñas y niños del centro de discapacitados y escuela sensorial de invidentes y sordomudos de la wilaya de Auserd en los campamentos de refugiados saharauis de Tindouf (Argelia).
- > DENOK OSASUNAREN ALDE – TODOS POR LA SALUD (D.O.A.). Proiektua: Programa de colaboración y fortalecimiento del sistema de salud en el ámbito asistencial, de formación y capacitación del personal sanitaria. Guatemala 2017.
- > LA VALMUZA FUNDAZIOA. Proiektua: Educación para la salud en adolescentes en riesgo del medio rural del sur de Mozambique.
- > UTOMI: Proyecto para la mejora y dotación nutricional del área pediátrica del Hospital El Carmelo, Chokwé-Mozambique.
- > ETIOPIA - UTOPIA: Formación del Personal Médico en Ayder Referral Hospital de Mekelle (Etiopia).

Aholkularitza Juridikoa

DATU INTERESGARRIAK

Zuzendaritza Batzordeari, Presidente eta Idazkari jaunei nahiz Elkargoko Fundazioari eskainitako aholkularitzaz gain, elkargokideek gai legeetan planteatutako zalantza eta/edo arazo guztiak argitu eta tratatzen dira Ahokularitza juridikotik:

Elkargoko egoitza

> Aurrez aurreko kontsultak, Elkargoko egoitza:	273
> E-mail bidez jaso eta bidalitako kontsulta ez-presentzialak:	450
> Telefono bidezko kontsulta ez-presentzialak:	650
> Irekitako espedienteak: Egindako kontsulten ondorioz, hainbat espediente ireki dira formatu fisikoan, ondoren izapidetu/erreklamatu eta erantzuteko	134

Erakunde publikoen aurrean burututako ekintzak

> Elkarte profesionalak sortzea eta altan ematea	1
> Diziplinazko espedienteak	2
> Administrazio-bidean arxibatua	1
> Oraindik ebatzi edo epaitu gabe	1
> Tituluen homologazioa	3
> Jardun pribatuan hasten diren medikuei EJGZn alta ematea	13
> Kontsultak Osasun sailean altan ematea	1
> Osasun Publizitateko Erregistroan alta ematea	1

Medikuek jasandako erasoak, eta horien salaketak

Medikuei egindako mehatxuengatik prozedura judizialak	2
Epaketaren zain	2

Beste jarduketa batzuk

Intrusismo-salaketa; izapidetzen oraindik	1
---	---

Auzibide jarduketak

Alde batetik, 2017. urtean lan-arloko jurisdikzio 18 demanda, 4 errekurso eta adiskidetzeko ekitaldi 1 burutu dira. Eta administrazioarekiko auzien jurisdikzioari dagokionez (Osakidetza) aurrera eramandako erreklamazioak banakakoak (11) nahiz multzokakoak (5) izan dira.

Jurisdikzio zibilari nahiz penalar, eta erreklamazio edo erantzukizun profesionaleko epaiketei dagokienez berriz, datuak hurrengoak dira:

1. Erreklamazioak- 2017an bidalitako gutunak: 7

2. Adiskidetzeko-ekitaldiak edo epaitegian aurkeztutako aurre-erreklamazioak, historia klinikoa eta Erantzukizun Zibil Profesionaleko Aseguruaren (S.R.C.P) poliza erakuts dadila eskatuz: 9

3. 2017. urtean oraindik ere izapidetzen ari diren auziak (aurreko urteetan abiatuak)

a) Epaitegietan eta Audientzian	10
b) Auzitegi Gorenean	0
c) Auzitegi Konstituzionalean	0

4. 2017. urtean ebatzitako auziak

a) Zibilak	2
b) Penalak edo zigor-arlokoak	3
c) Absoluzioko epaiak/prozedurak	4

5. 2017. urtean aurkeztutako auziak

a) Demanda zibilak	4
b) Salaketa penalak	1

6. 2017-12-31n oraindik ere izapidetzen ari diren auziak

a) Epaitegietan eta Audientzian	12
---------------------------------	----

7. Izapidetzen ari diren auziak, jurisdikzioaren arabera banatuak

a) Jurisdikzio zibila	11
b) Jurisdikzio penala, instrukzio-fasean	1

8. 2017. urtean sinatutako itunak

	2
--	---

Komunikazioa

2017ko aipagarrienak

Domeinu berria

2017an Elkargoak bere web helbidea aldatu du. Helbide berria COM siglek (Colegio Oficial de Médicos) eta GI silabek (Gipuzkoa) osatzen dute. Aldaketa honen helburua da, batetik, Elkargoak domeinu errazagoa eta intuitiboagoa izatea, eta, bestetik, Estatuko gainontzeko Elkargoek baliatzen duten eskemari jarraitzea: COM siglak eta norbere herrialdeko silabak.

Aldaketa honez gain, .eus domeinura ere salto egin du Elkargoak.



AGENDA buletina

Urte hasierarekin batera, Elkargoak bidali ohi zituen buletin elektronikoen berrantolaketa egin zen, elkargokideari informazioa modu errazagoan eta bisualagoan helarazi eta iristen zitzaizkion mezuak gutxitzeko asmoz. Egindako hobekuntzen artean AGENDA buletina sortu zen, astelehenero bidaltzen dena.

Buletin honek datozen asteetan Elkargoan egingo diren jardueren berri ematea du helburu, baita ekitaldi interesgarriak elkargokideei jakinaraztea ere.

AGENDA actividades próximas		
Próximas actividades y fechas de celebración		
Módulo	Módulo	Aula Médica Senior
Proyección multimedia: Hansel y Grethel (Humperdinck)	Proyección multimedia: El código postal es así. Importante que el código postal sea el código postal.	Curso de verano
Hansel y Grethel (Humperdinck)	El código postal es así. Importante que el código postal sea el código postal.	Curso de verano
Apartat: 4 de abril, 18:30h, Colegio.	Apartat: 5 de abril, 18:30h, Colegio.	Apartat: 27 de abril, 18:30h, Colegio.
Aula de Educación Infantil	Curso de verano	Curso de verano
Aprendiendo a cuidar	Salud comunitaria. El código postal es así. Importante que el código postal sea el código postal.	Clase de día: Prácticas en oncología
Apartat: 26 de abril, 18:30h, Colegio.	Apartat: 22-23 de mayo, Pabellón Miramar Jauregi.	Apartat: 22-23 de mayo, Pabellón Miramar Jauregi.
Paseo de la Ciencia. 15. 3013 Charroja. San Sebastián. Tel: 943 278 302 / Fax: 943 278 303 - info@comgi.eus / www.comgi.eus		

Aldizkari digitala www.medikuenahotsa.com

2017an Elkargoko aldizkari digitala estreinatu zen, 2016ra arte paperean inprimatzen zenaren jarraipena.

Formatu berri honek astero eduki berriak lantzeko aukera ematen du, esaterako, Elkargoarekin zer ikusia duten albisteak, osasun gaiekin zer ikusia duen aktualitatea edota elkarriketa eta erreportaje interesgarriak. Aldizkariak Gipuzkoako sendagileen txokoa bihurtzea du helburu.



2017 gehien irakurri zirenak:

- > [Joaquín Fuentes doktoreari elkarriketa, George Tarjan Award saria jaso eta gero](#)
- > [Iñigo Ojanguren neumologo donostiarra, Estatuko espezialista gazte onena aukeratua izan da](#)
- > [Ziurtagiri eta informe medikoei buruz](#)
- > [Lehen Arreta Arnasberritzen: lehen bileraren ondorengo prentsa oharra](#)

Youtube kanal berria

Elkarriketak, albisteak, informazio bideoak...





GIPUZKOAKO SENDAGILEEN ELKARGO OFIZIALA
COLEGIO OFICIAL DE MÉDICOS DE GIPUZKOA



www.comgi.eus

www.medikuenahotsa.com

